

**HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA**  
**MERKATARITZAN ETA ZERBITZUGINTZAN**  
OÑATI martxoaren 17

**EUSKARAREN OFIZIALTASUNA:**  
**EAEKO KONTSUMITZAILE ETA**  
**ERABILTZAILEEN ESTATUTUAREN**  
**APLIKAZIO JURIDIKOA**

**Iñaki Agirreazkuenaga**  
**Administrazio-Zuzenbidean Katedraduna**

## **AURKIBIDEA**

### **I.- HIZKUNTZA ALORREKO OINARRIZKO PRINTZIOAK**

- 1) Hizkuntzen ofizialtasuna*
- 2) Gaztelania jakin beharra*
- 3) Lurralde batetako berezko hizkuntza*
- 4) Hizkuntza dela-eta ez diskriminatzea*

### **II.- UDAL-EREMUAN EUSKARARI BURUZKO AUZITEGI GORENAREN JURISPRUDENTZIA BERRIA**

### **III.- UDAL-EREMUKO GUNE EUSKALDUNENEN ARAZOA**

### **IV.- KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK 6/2003 LEGEAREN ARABERA**

## I.- HIZKUNTZA ALORREKO OINARRIZKO PRINTZIPIOAK

Espainiar Konstituzioaren 3.1. artikuluko lehenengo paragrafoan gaztelania Estatuko hizkuntza ofizialtzat jotzen da, horrekin, bistakoa denez, gainerako hizkuntza ofizialekiko egoera desberdinean kokatuz, bera baita Autonomia Erkidego guztietan eta, beraz, Estatuko lurralde guztian, ofiziala den bakarra.

Bestalde, Konstituzioko 3.2. artikulua araberan, “*gainerako hizkuntza espainiarrak ere ofizialak izango dira dagokien Autonomia Erkidegoan, bertako Estatutuen arabera*”. Beraz, gaztelaniarentzat ezarritako ofizialtasun bera aitortzen zaie gainerako hizkuntza espainiarrei, nahiz eta Autonomia Erkidegoaren lurralde eremura mugatuta egon.

Halaber, Konstituzioak gaztelania jakin beharra ezartzen du, inplizituki hizkuntza dela-eta ez diskriminatze printzipioa ere onartuz, eta aldi berean Estatutu batzuk, hala nola Kataluniakoak edo Euskadikoak, katalana eta euskara, hurrenez hurren, Erkidegoko berezko hizkuntzat onartzen dituzte.

Nire ustez hizkuntza alorreko oinarrizko printzipioak ofizialtasunarena eta hizkuntza dela-eta ez diskriminatzearena dira inolako zalantzarik gabe, eta aldiz, gaztelania jakin beharrarena eta Erkidego batetako berezko hizkuntzarena osagarri gisa jo daitezke. Ikus dezagun bada hau guztia astiroago, printzipio bakoitzaren edukiak laburki aipatuz.

### 1) *Hizkuntzen ofizialtasuna*

Konstituzio Auzitegiak modu egokian adierazi duenez, “*hizkuntza bat, bizi duen errealitatea eta fenomeno sozial gisa duen pisua alde batetara utziz, ofiziala da botere publikoek beraien arteko eta subjektu pribatuekiko komunikaziorako ohiko bitarteko gisa onartu dutenean, erabateko balio eta eragin juridikoak izango dituelarik*” (KAE 82/1986). Beraz, hizkuntza bat lurralde batetan **ofizial** deklaratzaren denean, oztoporik gabe eta erabateko eraginkortasun juridikoaz erabili ahal izango da edonolako harreman publiko eta pribatuetan; alegia, ofizialtasunaren lehenengo ondorio juridikoak **hizkuntzarekiko eskubidean** datza, bai ikuspegi aktibotik baita pasibotik ere (erabiltzeko eskubide subjektiboa edozein kasutan eta erantzuna aukeratutako hizkuntzan jasotzeko eskubidea solaskidea erakunde publikoa denean). Honek, bistan denez, administrazio eta botere publikoetako egiturak hizkuntza ofizial anitzen beharretara moldatzea galdatzen du.

Bigarrenik, hizkuntza bat ofizial deklaratzetik eratorritako ondorioen artean juridikoki, aho batez onartuta dago, botere publikoek euren hezkuntza sisteman hizkuntza ofiziala edo ofizialak txertatzeko betebeharra hartzen dutela, horrela derrigorrezko hezkuntza bukatutakoan hizkuntza hori ikasleek jakingo dela ziurtatzeko [ikus gai honi buruz LOGSEko 19.a) artikulua, edo gure Erkidegoan Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legeko 3.2.g) artikulua]. Ildo beretik, Konstituzio Auzitegiak adierazia du “*Estatuak bere osotasunean (Autonomia Erkidegoak barne direla) bai gaztelania baita*

*hizkuntza ofizialaren izaera duen Erkidegoko berezko hizkuntza jakitea ziurtatzea ere betebeharrak konstituzionalak dela...., honek, jakina, bi hizkuntzak xede hori lortzea bidezko egingo duen indarrak irakatsiko direla dakar. Eta betebeharrak hori Estatututik ezezik, Konstituzio beratik ere dator” (3. art.). Horretaz gainera, Konstituzioaren interpretari gorenak erabiten duenez “erregulatutako gutxieneko ordutegiak ez balira nahikoak bi hizkuntza ofizialak eraginkortasunez irakasteko, betebeharrak konstituzional hori ez litzateke beteko” (KAE 88/1983). Beraz, ez da aski hizkuntza ofizialak irakastea, baizik eta beharrezkoa da irakaskuntza hori modu **eraginkorrean** antolatzea, horrela, derrigorrezko hezkuntza amaitzerakoan, ikastetxea edo hautatutako eredu edozein dela ere, ikasleek dagokien lurralde eremuko hizkuntza ofiziala edo ofizialak jakin ditzaten.*

Azkenik, hizkuntza bat ofizial deklaratzearen azken ondorio gisa zentzuzkoa dirudi ondorioztatzea —Kataluniako *Consell Consultiu* 35/1982 Txostenean egin zuen moduan— ezin dela Administrazioak darabilen hizkuntza ofiziala ez jakitea alegatu, hark, dagokion betebeharrak konstituzionalak betetz, ikastetxeetan hizkuntza ofizialaren edo ofizialen irakaskuntza eraginkortasunez bermatzen duenean. Gaztelaniari dagokionez, jakina, ondorio hori ziurtatuta dago, irakaskuntzak —Espainia osoan betebeharrak gisa orokortu zenetik— Estatu guztiko hizkuntza ofiziala ikastea bermatu baitu. Aldiz, Espainiako gainerako hizkuntza ofizialak irakaskuntzan sartzea duela gutxi gertatu da eta denek ez dute zorte bera izan. Horregatik normalizazio prozesu baten beharrenean daude eta bere oinarriak belaualdi berriei modu eraginkorrean erakustean datza.

## **2) *Gaztelania jakin beharra***

Hizkuntza alorrean Konstituzioan lehenengo nabarmentzen den alderdia da, gaztelaniaren eta Espainiako gainerako hizkuntzen ofizialtasunarekin batera esplizituki derrigorrez gaztelania jakin beharra agintzen dela. Konstituzioa egin zenean klausula hori ez zen uste gabean pasa, nahiz eta aurre egitasmoa ez zen aldatu, eta esan daiteke gaia oso eztabaidatua izan zela, izan ere, batzuk kentzea eskatu zuten, beste batzuk ordea gainerako hizkuntzetara ere jakin beharra hedatzea eta azkenik, espainiar guztiek gaztelania jakiteko obligazioa hizkuntza horren erabilerrara zabaldu nahi izan zuenik ere egon zen, koofizialtasunak bidezko egiten duen aukeraren aurkako jarrera agertuz. Dena den, proposamen horiek ez ziren onartu eta, ondorioz, Konstituzioak gaztelaniari dagokionean soilik agintzen du jakin beharra, nahiz eta edozein hizkuntza ofizial erabateko balio eta eragin juridikoz erabiltzeko eskubidea ere ezartzen duen. Horrek zera esan nahi du: Konstituzioak ez duela gaztelania erabiltzera behartzen ez eta bi hizkuntza ofizial dituzten Autonomia Erkidegoetan inposatzen ere, baizik eta hautatutako hizkuntza ofizialaren erabilera bermatzen duela.

Bestalde, Konstituziotik ondorioztatzen nahi bada Autonomia Erkidego elebidunetako bi hizkuntza ofizialen artean ez dagoela berdintasun juridikorik jakin beharra gaztelaniari bakarrik dagokiolako, baieztapen honi zenbait ñabardura erantsi beharko zaio eta galdetu beharko litzateke botere publikoek nola edo zein modutan bermatzen duten gaztelania jakitea. Honen erantzuna derrigorrezko irakaskuntzaren eta aurreikuspen hori hezkuntza planetan sartzearen bidetik etorriko da. Baina ezin da ahaztu ofizial deklaratzetik ere aurreikuspen horixe datorrela, izan ere Estatuak, Konstituzio Auzitegiak dioenez, nahitaezko hezkuntzan hizkuntza ofizialak eraginkorki irakatsiko direla bermatzeko “*betebeharrak konstituzionalak*” dauka. Beraz, betebeharrak honen ondorioz

logikoa dirudi pentsatzea Autonomia Erkidego elebidunetan derrigorrezko irakaskuntza egiten duten ikasleek bi hizkuntza ofizial jakingo dituztela.

Laburbilduz, gaztelania jakin beharra ezartzen duen Konstituzioko klausulak hizkuntzen ofizialtasunaren eragin juridikoari ez dio ezer berezirik eransten, ez bada **“behar”**aren berezitasuntzat **“gaztelania”**ri dagokion zerbait dela ulertzen, hain zuzen ere, Estatu guztian zehar hedatzen eta irakasten den hizkuntza delako, pertsonen bizileku eta auzotasun zibila kontuan izan gabe, bai Konstituzioa onartu aurretik baita ondoren ere. Alegia, gutako inork ez daki gaztelania Konstituzioak jakiteko beharra ezartzen duelako, baizik eta derrigorrezko hezkuntzan ikasi dugulako.

### **3) Lurralde batetako berezko hizkuntza**

Autonomi Estatutu batzutan berezkotasun printzipioa azpimarratzen da Erakunde Publikoek Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntzaren erabileraren lehentasuna ahalbideratzeko. Ildo horretatik, Kataluniako Hizkuntz Politikari buruzko 1/1998 Legean baieztatzen denez, berezko hizkuntzaren kontzeptua katalanari aplikatzeak botere publikoak hizkuntza hori babestera, modu orokorrean erabiltzera eta bere erabilpen publikoa maila guztietan bultzatzera behartzen ditu. Horretaz dihardu Legeko 2. artikulua ere ondorengoa adierazten duenean: *“Katalana, berezko hizkuntza denez, Kataluniako erakunde guztien hizkuntza da eta bereziki Generalitateko Administrazioarena, toki Administrazio, korporazio publikoena, enpresa eta zerbitzu publikoena, hedabide instituzionalena, irakaskuntzako eta toponimiakoa”*.

Dena den, aldi berean bi hizkuntza dauden Erkidegoetan, berezkotasun printzipioak ezin du ofizialtasun bikoitzaren printzipioa ezabatu. Nolabaiteko modulazioak eragin ditzake, baina orokorrean ezingo da hizkuntza bakarraren printzipioa aplikatu, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan burututako edozein jarduerak erabateko balio eta eragin juridikoa izango baitu. Beraz, hizkuntzen erabilerari dagokionean, Administrazio Publikoek bermatu behar dutena da herritarrek hautatutako hizkuntza ofiziala erabiliko dela *ad extra* edo kanpo harremanetan, Erkidegoaren berezkoa izan ala ez; ezberdina da lan-harremanetan —edota Administrazioaren *ad intra* edo barne harremanetan—, jarduera hauetan Erkidegoan berezkoa dena soilik erabil daiteke eta hori guztiz onargarria litzateke, beti ere noski, lege babesa badago eta Administrazioaren zerbitzura dauden langileak hizkuntzaren ikuspuntutik trebatuta badaude.

Horrela, laburbilduz esan daiteke hizkuntz ofizialtasun bikoitzak herritarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea babesten duela, eta berezko hizkuntzaren printzipioak aldiz, Administrazioeko barne harremanetan lehentasunez erabiltzea bidezko egiten duela, baita —hala egin nahi eta ahal bada— laneko hizkuntza gisa soilik hizkuntza hori erabiltzea ere. Horixe gertatzen da Estatuko Administrazio periferikoan gaztelaniarekin, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoari buruzko Legeko 36.1. artikuluan xedatutakoaren arabera (4/1999 Legea), eta gauza bera gerta daiteke, baina alderantziz, Autonomia Erkidegoko Administrazioetan edo Toki Administrazioetan berezko hizkuntzarekin.

#### 4) *Hizkuntza dela-eta ez diskriminatzea*

Sistema guztia borobiltzeko garrantzia berezia hartzen du hizkuntza dela-eta ez diskriminatzeko printzipioak, funtsezko eskubideen oinarritzko gunea baita berau gauzaterakoan hizkuntza ofizial baten hautaketa edo exijentzia tarteratzen denean. Konstituzioko 14. artikulua idazkeran hizkuntza hitza sartzea komeni zela begi bistakoa zen, batik bat nazioarteko itunekiko koherentziagatik. Hori buruz, kontutan izan behar da Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak (2.2. art.) eta Giza Eskubideak Babesteko Europako Hitzarmenak (14. art.) hala jasotzen dutela eta dakigun bezala, Espainiak bi testuak berretsita dituela.

Halere, Konstituzioak hori jasotzen ez duenez, mahai gaineratu beharreko galdera ondokoa litzateke: printzipio hori inplizituki sartuta ote dagoen. Erantzunak baiezkoa dirudi, izan ere oso urruti joan gabe, tipifikatzeko borondate itxirik ez dagoela ikus baitaiteke Konstituzioko 14. artikuluan beste baldintza edo zirkunstantzia pertsonal edo sozialak aipatzen direnean, zeintzuk logikoki hizkuntzari lotuta egon daitezkeen Konstituzioko 10.2. artikulua eragin zuzena dela-eta. Aipatu artikulua, jakina denez, funtsezko eskubideei buruzko arauak alor horretan eman diren eta Espainiak berretsi dituen nazioarteko akordioen arabera interpretatuko direla dio.

Printzipio honek izan ditzakeen ondorio praktikoak Estatu guztiko hizkuntza ofizialarekiko baita Autonomia Erkidegoetako berezko hizkuntzekiko ere eman daitezke, kasuan kasuko baldintzen arabera.

Zehazki, diskriminazioa funtsezko eskubide bat gauzaterakoan egon daiteke, hala nola funtzio publikoan lanera sartzekoan, non berezko hizkuntzaren balorazioa egiteko Konstituzioaren arabera inolako arazorik ez dagoen baldin eta burutu beharreko lanerako beharrezkoa duenarekiko zentzuzkoa eta proportzionala den; eta exijentziak ere ez luke arazorik sortu beharko, derrigortasuna bete behar den lanposturako gaitasunezko ukanbehar gisa azaltzen bada (KAE 46/1991).

Era berean, diskriminazioak aukeratutako hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubide publiko subjektiboan izan dezake jatorria, eta horrek, baita gutxiengo hizkuntzen kasuan ere, hizkuntzaren ofizialtasunean ezezik, aurrez aipatu Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 27. artikuluan ere du bere oinarria eta baita 2001 irailaren ondoren erregio hizkuntzen eta hizkuntza gutxituen Europako Karta Europako Kontseiluak onartutakoan. Nire iritziz hizkuntza ofizial orori dagokion eta ezabatu ezin den funtsezko eskubidea da. Hori bai, gehienez, Administrazioa hizkuntza ofizialak jakiteko betebeharrak konstituzionalari egokitu artean modulatu egin daiteke. Orobat, aipatu eskubidea ez da hizkuntzaren erabilera hutsarekin agortzen, baizik eta aukeratutako hizkuntza ofizialean erantzuna izateko eskubide konstituzionalera arte zabaltzen da.

Orain oreka eta irtenbidea aurkitu beharko zaion funtsezko arazoa hau da: Erkidego elebidun batean, non hizkuntza ofizialetako bat biztanleen zati batek soilik ezagutzen duen, nola uztartzen diren hizkuntza erabiltzeko eskubidea eta hizkuntza dela-eta diskriminatua ez izateko printzipioa, azken honek dituen aukera guztiak kontutan izanik. Bistakoa denez, Euskal Administrazio Publikoetan dagoen hizkuntz plangintzaren beharraren eta hemengo errealitate soziolinguistikoaren arteko harremana oso zuzena da.

Gauza bat, hizkuntza bat ofiziala izatea da, Konstituzio Auzitegiak dioen modura “fenomeno sozial gisa duen errealitatea eta pisua kontuan izan gabe”, eta beste bat, desberdina oso, errealitate horren abstrakzioa egin ahal izatea eta hizkuntza ofizial horren benetako ezagutza mailari muzin egitea. Argi dago euskararen kasuan bere ofizialtasuna, egitez, soziolinguistikoki baldintzatuta egon litekeela gune edo herri erdaldunetan; alegia, ofiziala izan arren zenbait tokitan ezinezkoa izango da bere erabilera normala eta euskaldunen hizkuntz eskubideak bermatzea, bere normalkuntzak administrazioko eta botere publikoetako egiturak hizkuntz ofizialtasunaren aniztasunera egokitzea eskatzen baitu, eta hori ez da ez bat-batean egiten, ez eta boluntarismoaren irrealtasunean eraikitzen ere.

Gainera, Euskal Herriko lurralde, eskualde eta herri desberdinetako errealitate soziolinguistikoa anitza da eta honek Administrazioan euskara jakitea Administrazio bakoitza kokatuta dagoen lurraldeko errealitate soziolinguistikoan dagoen euskararen ezagutzaren parean jartzen duen plangintza prestatu beharra dakar.

Beraz, derrigorrezkoa dirudi zonalde ez-euskaldunetan errealitate soziolinguistikoaren eraginez gutxiengoan dauden hizkuntzak ofizialtasunaren *statusa* izatetik erdi edo sasiofizialtasun *statusa* izatera pasatzea; baina ezin da ahaztu ofizialtasunetik eratorritako normaltze prozesuak oinarriak jarri dituela —derrigorrezko hezkuntza orokorraren bitartez— Euskal Autonomi Erkidegoko lurralde guztian, etorkizunean euskara benetan jakingo dela ziurtatuta gera dadin. Bitartean, Administrazioek eskaintzen dituzten zerbitzu publikoak, eta era zabal batean euskararen normalkuntza udalerrian, baldintzatua geldituko zaigu errealitate soziolinguistikoagatik. Honela herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko formula desberdinak erabili beharko ditugu, helburu edo xede desberdinak finkatuz, ildo honetan ikus daiteke 17. artikulua 86/1997 Dekretuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

## **II.- UDAL-EREMUAN EUSKARARI BURUZKO AUZITEGI GORENAREN JURISPRUDENTZIA BERRIA**

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia berriak bi aurrekari ditu: bata, Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 Epaiak eginiko interpretazioa Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko Legearen 8.3 art.ri buruz; bestea berriz, Eusko Legebiltzarraren jarduera eza, duela hogeita hiru urte onartutako legedia eguneratzeari eta gaur egungo errealitateari egokitzeari dagokionean. Bada, egoera honen aurrean ondoko galdera egin daiteke: Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko Legea tresna baliagarria izaten ote darraien edo, alderantziz, igarotako denborak eta Legearen iraunaldiak euskararen normalizazioan eragin dituen aldaketa positibo ukaezinek, Legearen postulatuak egungo errealitate soziolinguistikoari egokitu beharra galdatzen ote duten, bereziki, Autonomia Erkidegoko gune euskaldunenetan.

Izan ere, gogora ekarri behar dugu, Euskararen erabilera normalizatzeko Legearen 8.1 eta 8.2 art.en apustua dela, gaztelania eta euskara batera erabil daitezela arau juridikoen argitalpenean nahiz administrazio-egintzen jakinarazpenean, interesdun pribatuek espresuki aukeratzen dutenean salbu, soilik hizkuntza ofizialetako bat erabili

nahi dutela. Eta orobat, Euskararen erabilera normalizatzeko Legearen 8.3 art.ak zera xedatzen zuen: *“Gorago agindutakoa hala dela ere, botere publikoek toki-Administrazioaren eremuan euskara bakarrik erabili ahal izango dute, udalaren egoera soziolinguistikoa dela-eta, herritarren eskubideak kaltetzen ez diren heinean”*. Xedapen honek hain zuzen, salbuespeneko sistema bat taxutzen zuen, soilik baliozkoa zena nagusiki euskal hiztuna zen biztanleria zeukaten toki-korporazioetan. Aitzitik, dakigun bezala, Konstituzio Auzitegiak konstituzio kontrakotzat jo zuen xedapen hori, ondoko arrazoi juridikoetan oinarrituz: *“el art. 8.3 viene a ser inconstitucional por infracción de lo dispuesto en el art. 3.1 de la Constitución, en relación con la no existencia del deber de conocimiento del euskara en zona alguna del territorio del Estado, que resulta del art. 6 del EAPV”* (KAE 82/1986, 10. oinarri juridikoa).

Alabaina, ikuspegi ezberdinetatik eta termino juridikoak erabiliz, Konstituzio Auzitegiaren Zuzenbideko oinarri labur horri kontra egitea erraza da. Aldez aurretik ordea, zera adierazi behar dugu: Euskal Herrian salbuespenez taxutzen den eredu hori dela hain zuzen ere, ikuspegi soziolinguistikotik bederen, Estatuko gainerako Autonomia Erkidego elebidunetan orokortzen dena. Hala ondoriozta baitaiteke, hala toki-erregimenari buruzko, Kataluniako 8/1987 udal-Legeko 5. art.tik, nola Galiziako toki-erakundeetan, hizkuntza ofizial bezala galizieraren erabilera arautzen duen 5/1988 Legetik ere.

Zehazki, galiziar Legeak zera xedatzen du esplizituki: *“Las convocatorias de sesiones, órdenes del día, mociones, votos particulares, propuestas de acuerdo, dictámenes de las Comisiones informativas y actas de las Entidades Locales de Galicia se redactarán en lengua gallega”*. Dena den, *“beste hizkuntza ofizial batean ere idatz daitezkeela”* xedatzen du galiziar Legeak (art. 1). Halaber, Galiziako Xuntari esleitzen zaio, toki-Administrazioan berezko hizkuntza erabiltzen hasteko prozesua sustatzeko zeregina. Honetara, batetik, funtzionarioei galizieraz trebatzeko egokitzat jotako neurriak hartuko ditu; eta bestetik, galiziar toki-Administrazioan funtzionarioak sartzeko leihaketat, galizieraren ezagutza bermatuko du (2 art.). Honenbestez, Legea betetzea berratzeko, iragankorki bi urtetako epea izango dute, Administrazioaren idatzizko egintzetan galiziera erabiltzeko moduan ez zeuden toki-erakundeek.

Kataluniako 1/1998 Legeak bestalde, aipatu 8/1987 Legeko 5 art. aldatu du eta zera adierazten du argi eta garbi: *“El catalán es la lengua propia de la Administración local de Cataluña y, por lo tanto, debe ser la lengua de uso normal y general en sus actividades. Todos los ciudadanos tienen derecho a escoger la lengua oficial con que se relacionen con los entes locales, y éstos tienen el deber correlativo de atenderles en la lengua escogida...”*.

Hori guztia dela-eta, Konstituzio Auzitegiak adierazten duena soilik ikuspegi juridiko batetik aztertzen badugu, nire aburuz, ez dator Zuzenbidearekin bat, Euskararen erabilera normalizatzeko Legearen 8.3 art.ak dakarren arazoa gaztelania jakiteko beharraren ikuspegitik bideratzea. Ezin baitira parekatu gaztelania jakiteko beharra eta gaztelania erabiltzeko beharra. Hortaz, aipatu 8.3 art.ren edukia Konstituzioak ezartzen duen beharraren ikuspegitik aztertzea, juridikoki hutsegitea da, xedapen horrek soilik zehazten baitu, hizkuntzen ofizialtasun printzipioak dakarren ondorio bat baino ez. Hots, hizkuntza bat balio eta eraginkortasun juridiko osoarekin erabili ahal izatea, aldi berean ofiziala den beste hizkuntzarekin batera derrigorrez erabili behar izan gabe. Ezen, hori egiteak, gaztelaniaren *apaingarri* izatea baino ez lekarke.

Hain zuzen, Euskararen erabilera normalizatzeko Legearen 8.1 eta 8.2 art.en arabera, ulergarria da —logikoa delako—, hizkuntza gutxitu bat, ofiziala izan arren, guztiek ezagutzen duten hizkuntzarekin batera ohikotasunez erabili behar izatea. Aitzitik, arrazoizkoa dirudi ere, biztanle guztiek edo biztanleen gehiengoak hizkuntza gutxitua ezagutzen duten udalerrietan, hizkuntza hori bakarrik erabili ahal izatea, ofiziala den beste hizkuntzak lagundu behar izan gabe. Jakina, hori egiteak badu gaindi ezina den mugarik: hizkuntza dela-eta ez diskriminatzea, alegia. Izan ere, printzipio hori urratuko litzateke, euskara jakin edo ez, gaztelania erabili nahi dutenen eskubide legitimoak aintzat hartuko ez balira. Gai hori dagoeneko aurreikusi zuen Euskararen erabilera normalizatzeko Legearen 8.3 art. ak, zera xedatu zuenean: euskara soilik erabiltzeak ezingo zuela *“hiritarren hizkuntza eskubiderik kaltetu”*.

Nolanahi ere, argi dago, Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 Epaiaren ondorioz, gaur egun Euskararen erabilera normalizatzeko Legearen 8.3 art. gure ordenamendu juridikoaren osagai ez dela. Eta bien bitartean, euskal legegileak ordezeko aukerarik arautu ez duenez, euren jardueretan euskara —hizkuntza ofizial bezala— lehentasunez erabili nahi duten toki-korporazioek, ezin dutela erabaki hori oinarritu jadanik indarririk ez duen aipatu artikuluan. Aitzitik, toki-korporazioek euren erabakia oinarritu beharra daukate, Autonomia Erkidegoan subsidiarioki ezartzen den eta, balio zein eraginkortasun juridiko osoarekin, hizkuntza ofizial bakarra erabiltzea baimentzen duen —2568/1986 Errege Dekretuko 86 art. ren arabera, korporazioak erabakitakoari jarraiki— Estatuko araudian. 2568/1986 Errege Dekretuko 86 art. ak ordea, egungo jurisprudenzia berriaren argitan, ez du segurtasun gehiegirik eskaintzen. Gainera, *“ezargarria den legediaren arabera”* aplikatu beharko litzateke. Bada, euskarari dagokionez, legedi hori arestian aipatu Euskararen erabilera normalizatzeko Legea da eta jadanik, 8.3 art., desagertuta dago.

Hartara, Auzitegi Gorenaren 2000ko urriaren 9ko Epaiak (Azdi. 414/2001), Alegiako udal-Ordenantzaren legezketasuna aztertzerakoan, zera dio: *“es contrario a Derecho el art. 3 según el cual las actividades internas de carácter administrativo se realizan en euskara, pues ello supone vulnerar los derechos de las autoridades y funcionarios castellano-parlantes”*. Halaber, zera adierazten du: *“no es conforme a Derecho el art. 39 de la Ordenanza que establece que la señalización y todo tipo de anuncios deberá realizarse en euskara en cuanto omite la necesidad de que simultáneamente una y otros, es decir, la señalización y los anuncios referidos, deben constar igualmente en castellano”*. [adierazpen berberak ikus daitezke orobat, Auzitegi Gorenaren 2000ko azaroaren 13ko Epaiak (Azdi. 10348), Leaburu-Gazteluko udalak onartutako Ordenantzari buruzkoan].

Testuinguru honetan, Auzitegi Gorenaren jurisprudenzia berria aztertzen badugu, esaterako, ondokoaz ohar gaitzke: administratuekin harremanik ez duten funtzionarioei, barne jarduerak burutzeko gaitasun irizpide bezala, ezin zaiela euskara jakitea galdatu. Honela, adibidez, Auzitegi Gorenaren 1999ko maiatzaren 24ko Epaiak (Azdi. 6393), Aizarnazabalgo udal-Ordenantzaren legezketasuna aztertzerakoan, zera adierazten du: *“Respecto al artículo treinta y dos, en el que se exige el conocimiento de la lengua vasca para acceder a cualquier puesto de trabajo no puede considerarse contrario a derecho tal precepto más que si supusiera una discriminación en cuanto se imponga la lengua vasca en la selección de personal para cubrir plazas que no estén directamente vinculadas a su utilización por los administrados que deseen usar la*

*lengua de la Comunidad Autónoma*”. Honetara, 86/1997 Dekretuak, Administrazio publikoetako lan-hizkuntza bezala, euskararen erabilera babesten duela pentsatzen duenik egon daiteke. Alabaina, ikuspegi juridikotik, hainbat interpretazio arazo sor daiteke aipatu Dekretuko 1 art.ren eta Euskararen erabilera normalizatzeko Legearen artean. Jakina denez, arazo horiek ebazterakoan, beti ere Legea gailenduko litzateke.

Eta are larriagoa da oraindik, Auzitegi Gorenaren 2000ko urtarrilaren 18ko Epaitik ondorioztatzen den jurisprudentzia (Azdi. 1227), Tolosako Udalak jarritako apelazio helegitea gaitzeste duenean. Hain zuzen, badirudi Auzitegiak baztertzailatzat jotzen duela, iturgin, margolari eta igeltsero lanpostuak hornitzeko lehiaketa-oposaketa batean, hautagaiei euskara jakitea galdatzea. Izan ere, Auzitegiaren aburuz, euskara jakiteak ez dauka loturarik lanpostu horien egikaritzarekin. Antzeko beste kasu batean berriz, Auzitegi Gorenaren 2000ko urtarrilaren 26ko Epaiak, zorionez onesten du Lekeitioko Udalak jarritako kasazio helegitea. Izan ere, Lekeitioko udal-Ordenantzak xedatzen zuen —eta xedatutakoa lehen instantzian deuseztatu zen—, Udalak kontratatutako funtzionarioek euren jarduera euskaraz burutzeko gaitasuna izan behar zutela. Eta oraingoan ordea, Auzitegi Gorenak zera dio: *“no impide la utilización de la lengua castellana con los administrados cuando sea preciso o conveniente, ni supone otra cosa que el cumplimiento de la exigencia de mayor eficacia en el ejercicio de la actividad de los funcionarios municipales que demanda la circunstancia cierta de que la inmensa mayoría de los administrados se expresen, precisamente, en la lengua vasca”*.

Alabaina, Auzitegi Gorenaren 1999ko ekainaren 22ko Epaiak agerian uzten du (Azdi. 6401), Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak gai hau aztertzerakoan zorrotasun juridikorik ez daukala. Izan ere, Lizartzako udal-Ordenantza epaitzerakoan —eta ulertezina den arren— hain justu aurkakoa esaten du Auzitegi Gorenak, zera baieztatuz: *“funtzionario berriei euskara jakitea galdatzeak, gaztelania eta gaztelania darabilten administratuak diskriminatzen dituela”*, alegia. Gai hau aztertzeari ordea ez diot berrekingo. Ezen, nire aburuz, etorkizunari begira, euskal funtzio publikoari buruzko Legea eta garapenezko legedia bat datoz hizkuntza-eskakizunei derrigortasun-datak atxikitzearekin. Beraz, oraintsu aipatu jurisprudentziak ez dauka zentzurik ez eta zorrotasun juridikorik ere.

Jakina, berezko hizkuntza gisa eta *ad intra* ondorioak dituen lan-hizkuntza bezala euskara soilik erabiltzeari dagokionez, Auzitegi Gorenaren 1999ko maiatzaren 24ko Epaiak (Aizarnazabalgo udal-Ordenantzari buruzkoak) honakoa adierazten du: *“se produciría una contradicción frontal entre lo dispuesto en el artículo tres de la Constitución y los artículos tres de la Ordenanza (eliminación de lengua distinta de la vasca en las actividades internas del Ayuntamiento), veintiuno (obligación de redactar en lengua vasca todo documento relativo a la contratación)”*. Halaber, Auzitegi Gorenaren 1999ko uztailaren 1eko Epaiak (Azdi. 6411), **Mallabiko udal-Ordenantzari buruzkoak, era bitxian zera jotzen du baztertzailatzat: lehenik eta behin, Udaleko inprimaki ofizialak jendeari euskaraz eskaintzea, eta edonork gazteleraz eskatuz gero, orduan bakarrik inprimaki elebiduna eskaintzea**. Berebat, 2000ko urtarrilaren 26ko Epaiak (Lekeitioko udal-Ordenantzari buruzkoak), ondokoa baieztatzen du: *“pretender limitar el conocimiento de las comunicaciones, expresiones verbales, señales, contenido de los registros administrativos, o la formulación de los proyectos a los vascoparlantes en determinado ámbito del territorio español, significa tanto desconocer los principios constitucionales...como la doctrina del Tribunal Constitucional...declarando que la cooficialidad lo es con respecto a todos los poderes*

*públicos radicados en territorio autonómico,...todo ello sin olvidar la evidente discriminación que se produciría frente a todos aquellos administrados —pocos o muchos— que, por uno u otro motivo, pudiesen no dominar o conocer el euskara”.*

Haatik, Beasaingo Udalak euskaraz bizitzeko eta jarduteko hartzen duen erabakiaren aurka-egiteari aurre eginez, eta hizkuntza eskubide indibidualei zein kolektiboek begirunea zor zaiela aditzera ematen duen atal bat gehituz, zera dio Auzitegi Gorenaren 1998ko urriaren 14ko Epaiak (Azdi. 7700): erabaki horrek ez duela ordenamendu juridikoa urratzen, *“baztertu egiten duelako, euskara soilik eta derrigorrez erabiltzea, Udalaren barne eta kanpo jardueretan”.*

Orobat, arestian aipatu Auzitegi Gorenaren 1999ko martxoaren 8ko Epaiak (Azdi. 2743), ondokoa baieztatzen du: *“sí es discriminatoria la exigencia del conocimiento del Euskara a nivel hablado como requisito inexcusable para ser incluido en la preselección de aspirantes a la concesión administrativa para la conservación y limpieza del Frontón Municipal de Zaldibar...no sólo porque aquí no se trata de acceso a función pública o cargo público..., sino también y sobre todo porque el alcance y contenido de la gestión y explotación del servicio de que ha de encargarse el concesionario, según el art. 3 del Pliego de Bases, no justifica dicha exigencia del conocimiento del Euskara como requisito inexcusable que aquí se traduce en eliminatorio de otros aspirantes a la concesión que no conozcan dicha lengua, cuando resulta que la calidad de concesionario y la de sus obligaciones no está ni vinculada, ni cabe entender que ocasione una importante perturbación en el derecho a su utilización por parte de los usuarios del Frontón, lo que ha de motivar, por aplicación del art. art. 14 CE, en relación, en su caso, con los demás preceptos que invoca el Abogado del Estado, la estimación del recurso de apelación, y, en consecuencia, la revocación de la sentencia recurrida y la anulación de dicho Acuerdo Municipal”.*

Bestalde, Administrazioen arteko harremanetan, Mallabiko udal-Ordenantzak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orori —baita Estatuko Administrazio periferikoari ere— dokumentazio oro euskaraz igortzea xedatzen duenari aurre eginez, honakoa adierazten du Auzitegi Gorenaren 1999ko uztailaren 1eko Epaiak: *“no es conforme ni al art. 3 de la Constitución, ni a las normas del Estatuto de Autonomía y de la Ley 10/1982 del Parlamento Vasco, la obligación de uso del euskara que intentan imponer a la Administración General del Estado”.*

Ildo beretik, Auzitegi Gorenaren 2000ko otsailaren 10eko Epaiak (Azdi. 1880), Abaltzisketako Udalak hartutako erabaki bat epaituz —Udalerrri euskaldunen mankomunitatea deiturikoaren Estatutuak behin-betiko onartzen dituen erabakia, alegia—, zera ulertzen du Auzitegi Gorenak: *“el desarrollo y fomento del uso del euskara no puede llevarse a cabo por una Mancomunidad, porque tal figura administrativa sólo puede constituirse para la realización de obras y la prestación de servicios de competencia municipal, y es claro que el fomento y desarrollo del euskara no es competencia de los municipios, pues de forma inequívoca tal competencia corresponde a la Comunidad Autónoma”.* Halaber, zentzu berbera duen Auzitegi Gorenaren 2001eko uztailaren 9ko Epaiak ikus daiteke (Azdi. 8753), Munitibarko udal-Ordenantzei aipamen egiten diena, hain zuzen ere.

Diru-laguntzei eta hobari fiskalei dagokienean berriz, Auzitegi Gorenaren 1999ko ekainaren 22ko Epaiak, gaitzetsi egiten dut Lizartzako Udalak jarritako kasazio

helegitea, zera ulertzen baitu Auzitegi Gorenak: *“la Ley de Haciendas Locales de 1988 delimita los beneficios fiscales de los tributos locales a los expresamente previstos en normas con rango de ley, y claramente...la Ordenanza incide en tal prohibición al establecer una bonificación en la tasa por instalación de rótulos, sin que a lo anterior obste el que ciertamente el Reglamento de Servicios reconozca facultades a las Corporaciones Locales en materia de subvenciones, pues ello, obviamente lo será, tras la oportuna cobertura legal, que en este caso es exigida y no concurre, cual el Abogado del Estado refiere”*.

Salbuespenak salbu, ezin dugu baieztatu Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian berrikuntza nabarmenik ageri zaigunik. Izan ere, laurogeita hamarreko hamarkadan zehar jurisprudentzia hori ezagutzeko eta aztertzeke parada izan dugu, baita Euskal Herriko Justizia Auzitegiarena ere —euskarari buruzko udal-Ordenantzei buruzkoa, alegia—. Honetara, nire lanok ikus daitezke: *“Administración Local y Lengua: Referencia especial al caso vasco”*, Revista de Estudios de la Administración Local y Autónoma, 263 zkia., 1994, 433-440 orriak; eta *“Administrazio Foral eta Lokalaren ezaugarriak euskararen normalizazio bidean”*, Revista Vasca de Administración Pública, 44 zkia. (II), 1996, 222-231 orriak. Nolanahi ere, uneotan garrantzitsuena zera da: euskarari buruzko Auzitegi Gorenaren egungo jurisprudentzia ezagutzea, jarraian, Eusko Legebiltzarrak, jurisprudentziarekin bat ez datorren heinean, legezko erantzunen giltzak topa ditzan.

Honenbestez, ezin dugu ahantzi, gaur egun —2001eko irailaz geroztik— gure ordenamendu juridikoan indarrean dagoela erregio hizkuntzen eta hizkuntza gutxituen Europako Karta. Bada, toki-Administrazioei ezartzen zaizkien atalak aztertuz gero (euren paragrafo guztiak berretsita daude), Euskal Herriarentzat berrikuntza, Kartaren 2.a) art.ak dakarrena baino ez dela ohar gaitezke. Izan ere, honakoa xedatzen du: *“el empleo de las lenguas regionales o minoritarias en el marco de la Administración regional o local”*. Eta hain zuzen ere, Kartaren interpretazio-txostenaren arabera, zera adierazten du horrek: erregio hizkuntzak eta hizkuntza gutxituak, Administrazio publikoetan lan-hizkuntzak bezala erabil daitezkeela<sup>1</sup>. Aipatu aukerak —ofizialtasunaren eta berezko hizkuntzaren printzipioetatik ere ondoriozta daitekeenak—, Euskararen normalizazioari buruzko Legearen 8.3 art.ak aurreikusten zuen —eta arrazoirik gabe konstituzio kontraktotzat jo zen— neurri bati lege-babesa ematen dio. Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 Epaiak ordea —zati batean, Eusko Legebiltzarraren jardura ezaren ondorioz—, urteetan zehar, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia bati bide eman dio. Nolanahi ere, egun Europako Karta barne Zuzenbidearen osagai denez, aurrerantzean, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia hori, zalantzarik gabe, zuzendu beharra legoke<sup>2</sup>.

### **III.- UDAL-EREMUKO GUNE EUSKALDUNENEN ARAZOA**

Uneotan ez dago udal-Administrazioarentzat, lege-lerruna duen eta berez gure Autonomia Erkidegokoa den arauketa espezifikorik<sup>3</sup>. Izan ere, Eusko Legebiltzarrak,

---

<sup>1</sup> Ikus honetara, Kartaren interpretazio-txostena, Europako Kontseiluak eginikoa (106 zki.dun atala).

<sup>2</sup> Harrigarria da, Espainiak Europako Kontseiluari bidalitako txostenak okerki aipatzen duela, Euskararen normalizazioari buruzko Legearen 8.3 art. indarrean dagoela.

udal-eremuan hizkuntza ofizialen erabilera eta euskararen normalizazioa arautuko duen udal-lege bat onartzeko helburua eta konpromisoa betetzeari aspaldi utzi zion.

Hori guztia larria bada ere, gogoan izan behar dugu, Euskararen normalizazioari buruzko Legearen 8.3 art. konstituzio kontraketat jo ostean, eremu euskaldunenetan, balio eta eraginkortasun juridiko osoarekin euskara soilik erabiltzeko aukera lege-babesik gabe geratuko dela — Katalunian nahiz Galizian gertatuko ez den bezala— Eusko Legebiltzarraren jardura eza dela-eta.

Bada, lehenik eta behin, zera azpimarratu beharra dago: **udal-eremuan, beste edozein eremutan baino premiazkoagoa dela, hizkuntzari buruzko legedia tokian tokiko errealitate soziolinguistikoari egokitzea**. Honetara, ezinbestekoa da, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldea birtualki hainbat zonaldeetan banatzearen alde agertzea. Honen helburua da, zonalde bakoitzeko hizkuntza eskubideak hobe babestea, beti ere hiritarren beharren arabera eta udal-Administrazio bakoitzaren hizkuntza gaitasuna aintzat harturik<sup>4</sup>.

Bigarrenez, honakoa adierazi beharra dago: udal-eremuan, hizkuntzaren arauketa, osagarriak diren bi giltzetan oinarritu behar dela. Hain zuzen, lehengo giltzaren arabera, udal-eremuan, euskararen erabilerak indarrak gehien dauka eta hizkuntzaren arauketak erabilera hori areagotu dezake, **euskara benetako komunikazio-tresna edo benetako hizkuntza bihurtuz**, gaztelaniak derrigorrez lagundu behar izan gabe. Bigarren giltzaren arabera berriz, beharrezkoa da euskararen erabilerak diskriminaziorik ez eragitea, gaztelania, hizkuntza ofizial gisa ere, Administrazioarekiko *ad extra* harremanetan erabili behar duten edo soilik erabili nahi duten pertsonen.

Beharrezko ohar hauek egin eta gero, ondokoari ekingo diogu jarraian: eremu honetan, etorkizunari begira zehaztu behar diren legezko neurri espezifikoak aditzera emateari, alegia. Zalantza izpirik gabe, lehenengo neurri bezala aipa daiteke, Euskararen erabilerari buruzko Legearen erregimen orokorra malgutzeko beharra dagoela, udal-Administrazioen jardueran, gune euskaldunenetan, Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak batera erabiltzen direnean. Honela, Kataluniari dagokionean, oro har, gaiari buruz Auzitegi Gorenaren hainbat Epai dago, eta bertan zera aitortzen da: *“el bilingüismo no supone la obligación de todas las Administraciones Públicas de producir en las dos lenguas la totalidad de sus actuaciones”* (1996ko martxoaren 26ko eta 1997ko apirilaren 15eko Epaien arabera).

Hortaz, oinarrizkoa den neurri honetatik abiatuz gero, gainerako neurriak aintzat hartu beharko lukete *sensu contrario* aurreko atalean aztertutako jurisprudentzia. Izan ere, jurisprudentzia hori teknikoki ez zatekeen sortuko, Eusko Legebiltzarrak onartutako Lege batek, udal-Ordenantzak babestu izan balitu, eta beti ere —behin eta berriro

---

<sup>3</sup> Erregio-hizkuntzen eta hizkuntza gutxituen Europako Kartaren 10.2.a) art. alde batera utziaz, Europako Kontseiluak eginiko interpretazio-txostenarekin bat. Honetara, ikus daiteke I. AGIRREAZKUENAGA, *“Diversidad y Convivencia Lingüística”*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 2003, 127-133 orriak.

<sup>4</sup> Esaterako, 67/2003 Dekretuak, Osakidetzaren hizkuntza-plangintza arautzen duenak, ondoko udalerriak bereizten ditu: biztanleen %70tik gora euskaldunak direnak; biztanleen %45-69 artean euskaldunak direnak; biztanleen %20-44 artean euskaldunak direnak; eta biztanleen %20tik behera euskaldunak diren udalerriak, alegia.

errepikatu dugun bezala—, Administrazioarekin harremanak izateko gaztelania hautatzen duten administratuei diskriminatzen ez zaien bitartean.

Honenbestez, Eusko Legebiltzarraren Legeak gune euskaldunenetan, zehazki honakoa ahalbideratu beharko luke: gune euskaldunenetan, Administrazioaren zerbitzuan jarduten duten langile guztiei —hots, funtzionarioak, lan-kontratupekoak edo kontrataturik daudenak— euren lanpostuei egokitutako derrigorrezko hizkuntza-eskakizunak galdatu ahal izatea; euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza denez, Administrazioen barne jardueretan, lan-hizkuntza bezala, ohikotasunez eta orokorrean erabili ahal izatea<sup>5</sup>; hori dela-eta, batzarren deialdiak, eguneko gai-zerrendak, mozioak, boto partikularrak, erabaki proposamenak, informazio-batzordeen irizpenak eta udal-erakundeen aktak, euskaraz idatzi ahal izatea; udal-zerbitzu publikotan euskararen erabilera bermatzea, zerbitzu hori Administrazio berak kudeatzen duenean gertatzen den bezala; Administrazioen arteko harreman guztiak, gutxienez euskaraz burutu ahal izatea; udal-pizgarri zein udal-hobari fiskalak legez babestu ahal izatea; udal-eremuko diru-laguntzak ematerakoan, hizkuntza irizpide gisa aintzat hartzea; Autonomia Erkidegoaren emakidadun diren udal-hedabideetan, euskara soilik erabili ahal izatea; udal hizkuntza-paisaia, gutxienez euskaraz egotea; udal-esparruan, euskal hitzunik diren kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak eraginkortasunez errespetatzea; bake-epaitegietan, notariotzetan, jabego erregistroetan edo Estatuko Administrazioaren menpeko edozein erakundetan, euskal hitzunei inolaz ere ez diskriminatzea, ez eta, euren harremanetan —ahozkoak zein idatzizkoak— euskara erabiltzematik, atzerapenik jasan ez ditzatela; eta hala nahi izanez gero, udal-erri euskaldunen mankomunitateari legezko babesa eman ahal izango zaio, Legeak aitortzen duen heinean, aipatu mankomunitateak zerbitzu publiko bat ematen duela eta, euskararen erabilera sustatuz, udal-eskuduntza bat egikaritzen duela.

#### **IV.- KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILITZAILEEN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK 6/2003 LEGEAREN ARABERA**

Euskal Herriko erabiltzaileen eta kontsumitzaileen estatutua arautzen duen 6/2003 Legearen zioen azalpenak, honakoa dio: *“Legeak (...) hizkuntza-eskubideak aintzat hartzen ditu, eta, horrenbestez, Euskararen Erabilpena Arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeari jarraiki, Autonomia Erkidegoan dauden bi hizkuntza ofizialetako bata zein bestea erabiltzeko eskubidea aitortzeaz gainera, dagokigun arloan euskara —berariaz progresibotasun-printzipioari jarraituz— sustatzeko asmoa ere agertzen du”*.

Honela, Legearen 37 eta 42 artikuluetan zehar, aipatu eskubideak garatzen dira, “progresibotasun” printzipioarekin bat. Izan ere, printzipio honek derrigorrez galdatzen du lurraldeari dagokion errealitate soziolinguistikoa aintzat hartzea. Hartara, ondoko eskubide orokorra aitortzen da: *“Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan kokatzen diren enpresa edo establezimenduekin dituzten harremanetan, ofizialak diren bi hizkuntzetako edozein erabiltzekoa”*. Bada, enpresa eta establezimendu horiek, bi

---

<sup>5</sup> Gaur egun, erregio-hizkuntzen eta hizkuntza gutxituen Europako Kartaren arabera ere. Ikus honetara nire liburua *“Diversidad y Convivencia Lingüística”*, 132 orrian aipatua.

hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzen dutela ere, zerbitzu egokia eman beharko diete.

Halaber, zentzu guztiarekin, Legeak ondokoak bereizten ditu: “erakunde publikoak” (jendeari irekitako bere establezimendu oro barne hartzen dituela), “diruz lagundutako erakundeak eta interes orokorra daukaten sektoreak”, “merkataritzako establezimendu handiak”, eta azkenik baita inplizituki ere, gainerako zerbitzuak, komertzioak, sozietateak edo erakunde pribatuak.

Arazoak mailakatu ezker, lehenik eta behin -eta agian modu irreal batetan, ez baita aintzat hartzen espresuki errealitate soziolinguistikoa- 6/2003 Legeko 40.1 artikulua zera xedatzen du printzipio orokor bezala: “*Jendeari produktuak saldu eta zerbitzuak egiteaz arduratzen diren establezimenduek (...) kontsumitzaile eta erabiltzaileei arreta emateko gertu egon behar dute, horien hizkuntza ofiziala edozein dela ere*”. (Gaztelaniazko bertsioan argiago: “estar en disposición de atender a las personas consumidoras y usuarias cualquiera que se sea la lengua oficial en que se expresen”.) Gerora, artikulua bereko bosgarren letror aldeak honakoa dio: “*Jaurdaritzak erregelamendu bidez finkatuko du artikulua honetako betebeharrak arian-arian nola bete*”. Ondorioz, legegileak onartutako sistema honetan, paradoxikoki, inolaz ere galdagarriak ez diren betebeharrak ezartzen dira; edo behintzat, eraginkortasunez galda ezin diren betebeharrak batzuk, erregelamendu bitartez, dagokion garapena burutzen ez den bitartean.

Bigarren, Autonomia Erkidegoaren lurralde-esparruan kokatuta egonik, produktuak saltzen eta zerbitzuak ematen dituzten erakunde pribatuetan (dagokion garapena burutu ostean, arian-arian betebeharrak betetzeko galdapenari men eginez), zera egingo da: “*a) errotuluak, oharra eta, oro har, jendeari zuzendutako jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz emango dira*”; *b) Kontsumitzaile eta erabiltzaileek betetzeko egiten diren inprimaki edo eredu ofizialak bi hizkuntzatan emango dira; eta c) Kontsumitzaileak edo erabiltzaileak berak hizkuntza ofizialetako bakarra erabiltzea nahi duela adierazi ezean, bi hizkuntzatan idatziko dira atxikipen-kontratuak, klausula-ereduak dituzten kontratuak, araupeko kontratuak, baldintza orokorrak eta kontratu horiei buruzko edo horiek egitearen ondoriozko agiriak*”.

Hirugarren, diruz lagundutako erakundeek, merkataritzako establezimendu handiek eta interes orokorra daukaten sektoreek (garraio, telekomunikabide eta energia zerbitzuek bezala), erakunde pribatuei ezarritako betebeharrak betetzeaz gain, kontsumitzaileekin eta erabiltzaileekin dituzten harremanetan bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte. Honela, “*(...) kontsumitzaileei zuzendutako jakinarazpenak bi hizkuntzatan eman beharko dira, eta baita fakturak, aurrekontuak eta antzeko agiriak ere, kontsumitzaile eta erabiltzaileak berak bi hizkuntza ofizialetako bat bakarrik erabiltzea aukeratu ezean*”. Eta hori guztia, erregelamenduz garatzei utzi gabe, aipatu betebeharra arian-arian betetzeko galdapena.

Laugarren, erakunde publikoek, zerbitzu publikoen emakidadunek edo zerbitzu publikoak ematen dituztenek, eta nagusiki parte hartze publikoa daukaten sozietateek, arestian aipatu hizkuntza-betebehar guztiak eraginkortasunez betetzeaz gain, 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera, kontsumitzaileei eta erabiltzaileei eman beharko dizkiete bi hizkuntzatan idatzirik: “*produktu eta zerbitzuak erabili eta mantentzeko jarraibideen liburuxkak, berme-agiriak eta etiketetan eta ontzietan adierazi beharrekoak*”; baita

*“kontsumitzaile eta erabiltzaileei zuzendutako produktu, ondasun eta zerbitzuen eskaintza, sustapena eta publizitatea”* ere, erabilitako euskarria edozein izanik.

Bosgarrenez eta azkenik, Eusko Jaurlaritzak *“kontsumitzaile eta erabiltzaileei ondasun eta zerbitzuak eskaintzen dizkieten erakundeen jarduketan eremuan euskara erabil dadin sustatzeko egoki ikusten dituen neurriak sustatu eta beharrezko bitartekoak jarriko ditu eskura”* (42.1 art.). Orobat, *“Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan ondasun eta zerbitzuen inguruan kontsumitzaile eta erabiltzaileei banatzen zaien informazioa, etiketa, ontzi eta jarraibide-inprimaketakoa barne, euskaraz nahiz gaztelaniaz eman ahal izango da, betiere osasuna eta segurtasuna babesteko asmoz aplikatzen den legeriak ezar dezakeenari kalterik egin gabe”* (41.1 art.). Eta honenbestez, *“Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan araututako jatorri-deitura edo kalitate-deitura duten euskal ondasunek eta artisau-produktuek dituzten etiketetan jartzen diren nahitaezko datuak eta borondatezko informazio gehigarriak euskaraz agertuko dira, gutxienez”*. Betebehar hau arian-arian nola ezarri, erregelamendu bidez finkatuko da (41.3 art.).

Laburbilduz, begi bistakoa da, Euskal Herriko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei dagokienez, gaur egun indarrean dagoen araudia, aurrekoarekin alderatzen badugu, formalki nabarmen aldatu dela. Izan ere, aurreko araudiak, ez zion gai honi ia aipamenik egiten. Nolanahi ere, indarrean dagoen legediak ezartzen dituen hizkuntza betebeharrak uneotan inon ere zehagarriak ez diren heinean, esan al dezakegu, ikuspegi materialetik ere aldaketa nabarmenak dakartzala legedi horrek? Edo soilik, aldaketa formalei buruz baino ezin al dugu hitz egin?

Honetara, Legearen IV. Atalburua aztertzen badugu — zehatzeko ahalmena arautzen duena, alegia—, honakoaz ohar gaitzke: ez dagoela aurreikuspen espliziturik, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek hizkuntza eskubideak betetzen ez dituzten kasuetarako. Alabaina, ahalegin handirik egin behar izan gabe, aipatu lege-haustek barnera litezke 50.3.a) artikulua aurreikusten dituen urratzeen artean, edo 50.6 artikulua orokorrean aurreikusten dituenetan, beti ere, dagokion erregelamenduzko garapenak hala ezarri gero.

Oraingoz, agerikoa da, Legeak ezartzen duena ez betetzeak — eta beti ere, betebehar zehatzak ezartzen dituen erregelamenduzko garapenik ez dagoen bitartean— ez dakarziela ondorio juridikorik, arau-haustek egiten dituztenei. Honetara, nire aburuz, **ezinbestekoa izango litzateke aintzat hartzea, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubide errealak finkatzen diren lurralde-eremuko errealitate soziolinguistikoa. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidego osoan, uneotan soilik hizkuntza-eskubide orokorrak ezartzen dira, eta honek zera dakar: inori ezin zaiola eraginkortasunez galdatu, hizkuntza-eskubideak betetzeko obligaziorik.** Hau da, ez erakunde publikoei (Legearen xedapen gehigarriaren arabera, 38 artikulua ezartzen dituen hizkuntza-eskubideak kontsumitzaileei eta erabiltzaileei bermatu behar dizkietelako), ez eta diruz lagundutako edozein erakunderi ere —interes orokorrekoa edo guztiz pribatua—.

Bada, 6/2003 Legearen azken xedapen hirugarrenak aipatzen duena —hots, II. atalburuko VII. Kapituluaren erregelamenduz garatuko dela— abian jarri bitartean, ba al dago beste aukerarik?

Nire ustez, euskararen erabileraren sustapena eta normalizazioa bermatzea helburu duten udal-ordenantzak gara dezakete, bere eskuduntzen eremuan, euskara erabiltzeko eskubidea, kontsumitzaile edo erabiltzaile gisa, udal-barrutian jarduten duten enprekin, saltokiekin edo establezimenduekin harremanak izaterakoan, beti ere kontutan hartuz 6/2003 Legea.

Adibidez, udal-Ordenantza batetan, beti ere Udalerria erabat euskalduna izanik, ez litzateke inolako arazo juridikorik egon behar, datozen arauok onartzeko:

*xx. artikulua. Udalaren menpeko toki-erakundeak*

Udalari ezargaria zaion hizkuntzaren erregimen juridiko berbera ezarriko zaie, udal-korporazioak bertan eratu dituen Udalaren menpeko erakundeei, baita hala badagokio, udal-zerbitzu publikoen emakidadun diren enpresei ere.

*xx. artikulua. Diruz lagundutako entitate pribatuak*

Euskal Administrazio publikoek diruz lagundutako entitate pribatuek, edo edozein euskal Administrazio publikorekin lankidetzat-hitzarmen bat izenpetu dutenek, Eusko Legebiltzarraren 6/2003 Legearen 39. artikulua araberako, XXko udal-barrutian, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak diren pertsonen hizkuntza-eskubideak bermatu beharko dituzte:

- a) Idatziz zein ahoz, gutxienez euskaraz harrera eginez eta erantzunez, baita euren zerbitzuei buruzko informazioa emanez ere.
- b) Gutxienez euskaraz errotulatu euren lokalak eta argitalpenak.
- c) Gutxienez euskaraz eskainiz euren jarduerari dagozkion inprimakiak, oharrak, dokumentazioa, eskaintzak edo gainerako zerbitzuak.

*xx. artikulua. Interes orokorreko zerbitzuak ematen dituzten pertsona juridikoak*

Interes orokorreko zerbitzuak —unibertsaltzat lege zuzentutako zerbitzuak edo antzeko kategoria baten arabera zuzentutakoak— ematen dituzten pertsona juridikoek, edo unibertsaltasun nahiz berdintasun erregimen juridiko baten menpe dauden zerbitzuak —hots, garraio, telekomunikabide edo energia-zerbitzuekin gertatzen den bezala— ematen dituztenek, Azpeitiko udal-barrutian, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak diren pertsonen hizkuntza-eskubideak bermatu beharko dituzte:

- a) Idatziz zein ahoz, gutxienez euskaraz harrera eginez eta erantzunez, baita euren zerbitzuei buruzko informazioa emanez ere.
- b) Gutxienez euskaraz errotulatu euren lokalak, zerbitzuak eta argitalpenak.
- c) Gutxienez euskaraz eskainiz euren jarduerari dagozkion inprimakiak, oharrak, dokumentazioa, eskaintzak edo gainerako zerbitzuak.

*xx. artikulua. Enpresak eta merkataritza-establezimenduak*

XXko enpresek eta merkataritza-establezimenduek euren zerbitzuak gutxienez euskaraz errotulatuak dituzte, eta euren euskaraz zuzentzen zaizkienei, udalerriko berezko hizkuntzan ahoz zerbitzua emango diete.

*xx. artikulua. Hizkuntza-eskubideak eta funtzio publikoen jarduera pribatua*

Udala arduratuko da hiritarrei ondokoa berma diezaieten:

- a) Jabego-erregistroan, atzerapenik gabe, eraginkortasunez euskaraz harrera egin eta erantzun diezaieten eskubidea. Baita euskaraz eskuratzekoa ere, erregistroari dagozkion agiri guztiak.
- b) Notario-jardueran eraginkortasunez euskaraz harrera egin eta erantzun diezaieten eskubidea. Baita euskaraz jasotzekoa ere, notariotzari dagozkion agiri guztiak.

*xx. artikulua. Udal hizkuntza-paisaia*

Udala arduratuko da Ordenantza honetan jasotzen diren xedapenak bete daitezela, bereziki lortzeko, gutxienez euskaraz errotula daitezela hiritarrei zabaldua dauden udalerriko establezimendu guztiak. Hartara, udal-erabaki bitartez egokitzat jotako diru-laguntzak finkatu ahal izango dira, euskararen erabileraren normalizazioari buruzko 10/1982 Legearen 27. artikulua babesean.

*xx. artikulua. Udalerrian merkaturatutako produktuen etiketak*

XX udalerrian merkaturatutako produktuei etiketak jarri ahal izango zaizkie, bertako hiritarrek erraz ulertzen duten hizkuntza ofizialean. Nolanahi ere, udalerrian honetan eginiko artisau-produktuei euskara hutsean etiketak jarri ahal izango zaizkie.

*xx. artikulua. Sustapeneko jarduera publiko orokorra*

Bizitza sozialaren bilakaeran, mota guztietako jardueretan euskara sustatzearen, XXko Udalak egokitzat jotako neurriak jarriko ditu abian. Honen helburua da, hiritar orori erraztea, udalerriko berezko hizkuntzan bizi daitezela. Berezi lehentasuna emango zaio euskararen normalizazioari eta sustapenari, merkataritzako, elkartzeko, kirol eta kontsumo-jardueretan, euskararen normalizazioari buruzko 10/1982 Legearen 26. eta ondorengo artikuluen arabera, baita kontsumitzaileei eta erabiltzaileei buruzko 6/2003 Legearen 37. eta ondorengo artikuluei jarraiki ere.

*xx. xedapen iragankorra. Pertsona juridiko pribatuak*

Pertsona juridiko pribatuek Ordenantza honetan ezartzen zaizkien xedapenak betetzeko obligazioa daukate, Ordenantza argitaratzen denetik urtebeteko epean. Hartara, obligazio horiek bete ditzaten, Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza eta aholkularitza jasoko dute.